

2012-03-27ko UDALBATZA OHIZKOA

Iruran, bi mila eta hamabigarren urteko martxoaren hogeita zazpian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-BILDU udal-taldekoak: Gorka Murua Makuso, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainara Mugica Iruretagoyena, Josu Yurrita Loitegui eta Tomas Etxeberria Sarasola..

-EAJ/PNV udal-taldekoa: Javier Izaguirre Gomez.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2012-02-28).- 2012ko otsailaren 28ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

- 2012ko 26tik 39 zenbakira bitartekoak.

HIRUGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, UDAL HONETAKO 2012KO EKITALDIARI DAGOKION AURREKONTU OROKORRA.

Udalaren Aurrekontu Orokorraren berri eman da. 2012ko jarduera ekonomikorako aurrekontua da; udalaren berezko aurrekontua da soilik. Korporazioko lehendakariak aurkeztu du, udal honetako idazkaritza kontu-hartzaitzak informatuta. Aurrekontuari erantsi zaio Aurrekontua Betearazteko Udal-araua.

Aurrekontu Orokorra aurrekontu eta kontabilitate gaien inguruan indarrean dauden legeen arabera osatu da, hala ezartzen baitu abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzkoak. Haserako defizit gabe agertu da eta korporazioko udalbatzaren osoko bilkurari aurkeztu zaio onartu, itzuli edo zuzen dezan.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzordeak, gaur egindako bileran, aldeko onarpena eman dio.

Horren aurrean, aurretik bere edukiaren inguruan azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Udalbatzak ondorengo erabaki du aho batez, aipatutako apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 18. artikuluan eta ondorengoetan erabakitakoa jarraituz:

Lehen.- Irurako Udalaren 2012 urteko Aurrekontu Orokorra behin-behinean onartzea. Udalaren berezko aurrekontua da soilik. Gastu eta sarreren egoera atalka laburtuz gero, honela gelditzen da:

Sarrerei dagokionez:

KAPITULUAK	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	481.000,00
2	Zeharkako zergak	15.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	223.000,00
4	Transferentzia arruntak	935.400,00
5	Ondarezko sarrerak	17.100,00
6	Inbertsio errealak inorenganatzea	275.000,00
7	Kapital transferentziak	22.000,00
8	Aktibo finantzarioak	1.000,00

9	Pasibo finantzarioak	1.000,00
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA		1.970.500,00

Gastuak, bestalde:

KAPITULUAK	IZENDAPENA	EUROAK
1	Pertsonal-gastuak	671.000,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	493.500,00
3	Finantza-gastuak	00,00
4	Transferentzia arruntak	237.200,00
6	Inbertsio errealak	327.500,00
7	Kapital Transferentziak	75.000,00
8	Aktibo finantzarioak	00,00
9	Pasibo finantzarioak	166.300,00
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA		1.970.500,00

Ez da berezko Aurrekontu Orokorra deskribatu, honen errepikatze hutsa delako.

Honela, 2012ko jarduera ekonomikorako Aurrekontua Betearazteko Udal-araua onartu da.

Gainera, aurrekontua gauzatzeko oinarri eta arauak ere onartu dira.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz hamabost egun eraginkorrez, erreklamazioak egin ahal izateko. Aurrekontua erabat onartutzat joko du udalak, aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Behin betiko onartutako aurrekontu orokorra Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da atalka laburtua.

Behin betiko onartutako aurrekontuaren kopia bat bidaliko du udalak Gipuzkoako Foru Aldundira.

Hirugarrena.- Aurrekontua dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko

atalean aurreikusitako eran argitaratua izan ondoren.

Gainera, aurrekontuaren kopia bat eta bere aldaketak jendearen eskura egongo dira informazioa izan dezaten, behin betiko onartzen den unetik jarduera bukatu arte.

Erabaki hau izapide-egintza (tramite-egintza) soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

Erabaki hau ez da behin betikoa administrazio bidean.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO UDALEKO 2012KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.-

2012ko Aurrekontuarekin batera 2012ko Irura Udaleko langileen plantilla eta Lanpostuen Zerrenda aurkeztu da.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko informazio batzordeak, aldeko proposamena egin dio, 2012ko otsailaren 28an egindako bileran.

Hori kusita udalbatzak aho batez hau onartu du:

Lehenengoa.- Behin behineko onarpena ematea.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Udal Aurrekontuarekin batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, erreklamazioak egin ahal izateko.

Onartutzat joko da espedientea, erreklamaziorik ez bada aurkezten argitaratuko epean.

Erabaki hau ez da behin betikoa administrazio bidean.

BOSGARREN GAIA

UHOLDEAREN ONDORIOZ EGIN BEHARREKO OBREI BURUZKO ALKATEAREN DEKRETUA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.

Alkatearen 39/12 zk. duen 2012ko martxoaren 20ko dekretuaren berri eman da:

“Otsailaren 28ko 6/2012 Foru Dekretuaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei aparteko laguntzak ematen zaizkie, 2011ko azaroaren 5ean eta 6an izan ziren aparteko euriteen ondoriozko kalteak arintzeko.

Irura Udalak ere jasan zituen jabari publikoko bere ondasunetan 2011ko azaroaren 5eko eta 6ko aparteko euriteen ondorioz sortutako kalteak.

Hori kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

1.- Foru Dekretu horren bidez, dagokion diru-laguntza eskatzea, aipatutako kalteak konpontzeko eranstean den memoriaren arabera eta 44.345,62 euroko aurrekontuarekin.

2.-Udal-onuradunek bere gain hartu behar dute, oro har, egin beharreko jardueren gastu finantzarriaren %50a. Halaber, Irurako Udalak kreditu egokia eta nahikoa xedatzeko erabaki, ezarri, konpromisoa hartzen du akordio honekin.

3.- Udalbatzari jakinaraztea hurrengo bileran akordio hau berrestu behar duela.”

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari Buruzko Batzorde Informatiboak aldeko proposamena egin du gaur egindako bileran.

Hori dela eta udalbatzak aho batez berrestea erabaki du.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

SEIGARREN GAIA

LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA IRURAKO UDALAREN ETA TOLOMENDIREN ARTEAN, INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN DINAMIZAZIO ETA AHOLKULARITZA LANAREN SUSTAPENERAKO, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalaren eta Tolomendiren arteko lankidetzaz hitzarmena aurkeztu da, Tolosaldeko Udalerrien informazio eta Komunikazio Teknologien dinamizazio eta aholkularitza lanaren sustapenerako.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari Buruzko Batzorde Informatiboak aldeko proposamena egin du gaur egindako bileran.

Eta Udaltzarak aho batez onartu ditu erabaki hauek:

1.-Lankidetzaren hitzarmen hau onartzea.

2.-Alkatea baimentzea hitzarmen hori udal honen ordezkari sinatzeko.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

ZAZPIGARREN GAIA

BEHIN BETIKO KONTRATAZIO-MAHAIA OSATZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak behin betiko kontratazio-mahaia osatzeko proposamena aurkeztu du.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari Buruzko Batzorde Informatiboak aldeko proposamena egin du gaur egindako bileran.

Udaltzarak aho batez erabaki du hau onartzea:

KONTRATAZIO MAHAIA.

Kontratu publikoen legedian jasotakoaren arabera, kontratazio-organismoak —Udal honetakoak bi dira, Alkateak eta Udaltzara, hain zuzen— Kontratazio-mahaia izango dute.

Mahaia izaera teknikoagoa duen organoa da, non udalkideek eta funtzionarioek parte hartzen duten, eta kontratazio-prozeduran aurre erabakiak hartzen diren (proposamenak onartzea edo atzera botatzea, eta, hala badagokio, negoziatzea), kontratazio-organismoari (alkateari edo udaltzari) adjudikazioa proposatzeko.

Kontratazio-mahaia nahitaez egon beharko du esleipen-

MESA DE CONTRATACION.

De acuerdo con lo dispuesto en la legislación de contratos públicos, los órganos de contratación, que en este Ayuntamiento son dos, la Alcaldía y el Pleno, estarán asistidos por una Mesa de Contratación.

La Mesa, es un órgano de carácter más técnico en la que participan corporativos y funcionarios y que toma en el procedimiento de contratación las decisiones previas (admitir o inadmitir proposiciones, negociar, en su caso) y al final proponer la adjudicación al órgano de contratación (Alcalde o Pleno).

La existencia de la Mesa de Contratación es obligatoria en todos

prozedura guztietan, kontratu txikietan edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetan. Azkeneko kasua zabaltzea proposatuko nuke, hori baita gehien erabiliko dena.

Kontratazio-mahaian egongo dira udaleko kidea, bertako funtzionarioa, idazkaria eta kontu-hartzailea —kasu honetan idazkaria/kontu-hartzailea, eta udaleko funtzionarioen edo kontratupeko langileen artean izendatzen direnak—. Mahaian beste edozein teknikari egon daiteke, gaiari buruz aholkuak emateko; obretarako kontratuan, adibidez, proiektuaren egileak ahotsa izango du, baina ez botoa. Mahaiko idazkaria udaleko kontratupeko langilea izango da.

Erabakiak taldean hartuko dira, eta, behar izanez gero, boto bidez. Mahaikide guztiek botoa emateko eskubidea dute, idazkariak izan ezik (ahotsa du, baina ezin du botorik eman). Erabakiak boto bidez hartuko dira, eta, hala badagokio, gehiengo soilez. Berdinketa kasuan, lehendakariaren kalitate-botoak erabakiko du. Gutxieneko kide kopurua hirukoa da, idazkaria gehituta.

Kontratazio-mahaia behin betikoa izan daiteke, edo kasu bakoitzean kontratazio-organoak hautatzen duena.

los procedimientos de adjudicación, menos en la de los contratos menores o el negociado sin publicidad. Propondría extenderlo a éste último caso, porque será el más utilizado.

La Mesa de Contratación estará presidida por un miembro de la Corporación o un funcionario de la misma, por el Secretario y el Interventor, en este caso el Secretario-Interventor y así como aquellos otros que se designen entre el personal funcionario o laboral de la Corporación. También la Mesa puede ser asistida por otro cualquier técnico que asesore en función del tema: por ej., el autor del Proyecto, en un contrato de obras, que tendrá voz pero no voto. Será secretario de la Mesa un personal del Ayuntamiento.

Las decisiones se toman colectivamente, si es necesario votando. Todos los miembros de la Mesa tienen derecho a voto menos el/la Secretario/a que tendrá voz pero no voto. Las decisiones se toman votando, en su caso, y por mayoría simple. En caso de empate decide el voto de calidad de la Presidencia. El número de miembros mínimo es de tres más el/la Secretario/a.

La Mesa de Contratación puede ser permanente o elegida para cada ocasión por el órgano de contratación.

Ildo beretik, hona hemen nire proposamena:

1.- Behin betiko Kontratazio-mahaia izendatzea.

2.- Mahaiak prozedura guztietan parte har dezala, kontratu txikietan izan ezik.

3.- Kontratazio Mahaia honela eratuko da:

-Lehendakaria:
Korporaziokoa edo eskuordetutako zinegotzia.

-Bokalak:

- 3 zinegotzi, modu honetan:

-2 zinegotzi Bildu udal talde politikotik.

-1 zinegotzi EAJ/PNV udal taldetik.

-Udaleko funtzionario edo kontratupeko langile bat, kontratazioaren arabera.

-Idazkaria/kontu-hartzailea.

-Idazkaria:
Idazkaritzako/Kontu-hartzailetzako funtzionarioa edo kontratupeko langilea.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

En este sentido mi propuesta es la siguiente:

1º.-Nombrar una Mesa de Contratación con carácter permanente.

2º.-Que dicha Mesa intervenga en todos los procedimientos, salvo el de contratos menores.

3º.-Que la Composición de la Mesa de Contratación, sea la siguiente:

-Presidente: El /la de la Corporación o Concejal en quién delegue.

-Vocales:

- 3 concejales de la siguiente forma:

-2 concejales por el Grupo Municipal de Bildu

-1 concejal por el Grupo Municipal del P.N.V.

-Un funcionario o laboral de la Corporación en función de la contratación.

-El/la Secretario-Interventora/a.

-Secretario/a: Un/a funcionario/a o laboral de la Secretaría-Intervención.

ZORTZIGARREN GAIA

IRURAKO GAZTE ASANBLADAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Ikerne Lasa Salaberria andereak, Irurako Gazte Asanbladaren izenean, 750 euroko diru-laguntza eskatu du, 2011ko irailaren 24ko San Migel jaietan egin zen Gazte festako ekintzak ordaintzeko.

Kultura Batzorde Informatiboak aldeko proposamena egin du 2012ko martxoaren 20an egindako bileran.

Eta hori kontuan hartuta, Udalbatzak honakoa onartu du, aldeko 8 botorekin (Bildu) eta abstentzio 1ekin (PNV):

Eskaera onartzea eta 750 euroko diru-laguntza ordaintzea.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

BEDERATZIGARREN GAIA

2012 EKITALDIKO TOLOSALDEA GARATZENENTZAKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak aho batez onartu du 2012 urterako Tolosaldea Garatzeni egin beharreko 6.143 euroko ekarpena.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

HAMARGARREN GAIA

TRINKETEKO TABERNAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOA ETA BALDINTZA AGIRIAK (PLEGUAK) ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gai hau mahai gainean uztea erabaki da aho batez.

HAMAIKAGARREN GAIA

BATERAGUNE AUZIA DELA ETA AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“Datorren martxoaren 28an, Auzitegi Gorenak Bateragune auziaren helegitea aztertuko du Madrilen. Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto hamar eta zortzi urtetako kartzela zigorrera kondenatu zituen Entzutegi Nazionalak ETAkoak izatearen akusaziopean.

Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken hilabeteetan. Hamarkadak iraun dituen ziko armatua atzean utzi eta bide politiko eta demokratikoetan sakonduz etorkizun aske bat eraikitzea da herri honek desio eta erabaki duena. Atzeraezina den bide hori abian da.

Garai berri hauek abia arazten, zuzeneko inplikazioa izan zuten gaur egunean kartzelan dauden bost kide hauek. Herri hau, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz, eraiki behar dela aldarrikatze da beraien jardueraren xedea. Lan politikoa egiteagatik izan ziren atxilotuak, ziklo aldaketa ekarri duen lan politikoari ekiteagatik hain zuzen ere.

Ez Euskal Herritarren, ez eta nazioarteko iritzi publikoak ere, ez du ulertzen eta onartzen, Bateragune auzian kondenatutako bost Euskal Herritar hauek kartzelan izaterik. Ez du onartzen, sortu den egoera berri honen aurrean, espainiar estatuak urrats positiborik eman gabe gelditzerik.

Hau guztia kontutan izanik, honako erabaki hau hartzen da:

Udal honek herritarren gehiengoaren eskaera kontutan hartuz, Bateragune auzian Entzutegi Nazionalak emandako ebazpena bertan behera utzi eta Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto aske uzteko eskaria egiten du.”

Udalbatzak mozioa onartu du, aldeko 8 botorekin (Bildu) eta abstentzio 1ekin(PNV)

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

HAMABIGARREN GAIA

ZERO ZABOR LURRALDEA BIHURTZEARI BURUZKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“HIRI HONDAKINEN BILKETA SISTEMA eta ZERO ZABOR POLITIKA. PROPOSAMENA

2012ko martxoaren 21eko Ingurumen Batzorde Informatzailean aztertu zen, bestek beste, gai hau:

“Hondakinen bilketa sistema alternatiboa”

Udalon helburu nagusietako bat herritarren ongizatea zaintzea da, eta Irurako udalak, zerbitzu publikoa den aldetik, herritarren bizi kalitatea zaindu nahi du, zalantzarik gabe.

Hau honela, eta hiri hondakinei lotzen bagatzaizkiok, Tolosaldeako Mankomunitateak urteak daramatza gure hiri hondakinak bildu eta Beasaingo zabortegira jaurtitzen, eta ondorioz gure hondakinak eragiten dituzten kalteak gure bizilagunek pairatzen dituzte. eta hori ez da zuzena. Ez da zuzena ere, birziklatzeko saio guztiak baztertu eta gure hondakinak erraustera bidaltzeko asmoa, arazo bati arazo handiago batekin erantzutea arriskutsua izateaz gain antzua baita.

Iruratarrok arazo bat dugu hondakinen kudeaketarekin. Urteak daramatzagu edukiontzien sistemarekin birziklatzeko asmotan, baina urratsak eman baditugu ere, sistema ahitua dago. Gaur egungo gure birziklatze maila ez da %30era iristen, %90 birziklagarria denean. Denok birziklatzen dugula esaten dugu baina datuak gordinak dira, hondakinen %70 baino gehiago zabortegietara botatzen ari gara. Ez dugu organiko gramo bakar bat ere biltzen modu bereizian. Eta errealitatea are gordinagoa da: gaur egun papera, beira, ontziak eta organikoa nahastuta botatzen ari gara, balio handia duten eta lehengai diren hondakinak zabor kutsatzaile bihurtzen ari gara eta hori onartezina da.

Arazoa dugu bai, baina konponbidea ere bai. Guk Gipuzkoa garbia nahi dugu, Irurako airea, mendiak eta errekek garbiak nahi ditugu. Horregatik, eta Iruran gauzak ongi egiten dakizkigulako, arazoari muinetik helduko diogu.

Iruratarrok hondakinen murrizketari, berrerabiltzeari eta birziklatzeari ekingo diogu. Iruran gauzak ongi egiten ditugulako zero zabor politikarantz abiatuko gara, pausu txiki batekin emaitza ezin hobeagoak lortuko ditugu.

Hau horrela, Batzorde Informatzailean ondorengoa proposatzen du:

1. Irurako Udalak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko azterketa abiatuko du Tolosaldeako Mankomunitatearekin.

2. Irurako Udalak Mankomunitatearekin batera adostuko du konpostatze kanpaina zabala egitea herriko familien artean.

3. Irurako Udalak ahalik eta gehien birziklatze aldera, emaitza onenak lortzen dituen hiri hondakinen bilketaren alde egiteko konpromezua hartzen du, eta %80ko birziklatze maila lortzen ari den sistema bakarra atez ateko bilketa da gaur egun.

4. Udalak etengabeko urratsak emango ditu Irura zero zabor lurraldea bihurtzeko bidean.

5. Hau guztia burutzeko, Tolosaldeako mankomunitatearekin lan-batzorde bat osatzeko eskaera egingo du.”

Udalbatzak mozioa onartu du, aldeko 8 botorekin (Bildu) eta aurkako 1ekin (PNV).

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

Galdera eta eskarien aurretik honako gaia aztertu zen, izan ere, bertaratuek aho batez adierazi zuten gaiak presa zuela, eta bertaratutako hauek guztiek korporazioko partaideen zilegizko kopuruaren gehiengo osoa ordezkatzeko dute:

HAMAHIRUGARREN GAIA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATZEKO OINARRIAK ONARTZEA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu ditu emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten jardueretarako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2012rako deialdia.

Berdintasuneko Batzorde Informatiboak aldeko proposamena egin du 2012ko matxoaren 21an egindako bileran.

Udalbatzak aho batez onartu ditu erabaki hauek:

Lehenenik.- Hezkidetza egitasmoa Urtxintxa Taldeak gauzatzea.

-Gipuzkoako Foru Aldundira eskaera bideratzea.

-Irurako Udalak, Anoetarekin batera, 2012-15 legealdiaren berdintasunerako tokiko politikak lantzeko konpromisoa hartzea.

-Udal bakoitzak konpromisoa hartzea aurkeztutako hezkidetza egitasmoa finantzatzeko gastu osoaren %50eko ekarpena egiteko, hau da, 4.775 € udal bakoitzak.

-Anoetako Udala izendatzea programaren kudeaketa eta ordainketak egiteko.

Bigarrenik.-Alkatea baimentzea behar diren hitzarmenak sinatzeko udal honen izenean.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

HAMALAU GARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Ez da galde-erregurik egon.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:45ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari gisa dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA